

**2372/2009 FORU AGINDUA, irailaren 15ekoa, peritu-tasazio kontrajarrietan esku hartzeko izendatutako gainerako perituen ogibidesariak, haien gainean eratu diren ondasun edo eskubideei dagozkienak, ezarri dituena  
(BAO Irailaren 18koa)**

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 55. artikuluan 2. idatz-zatian ezarritik dagoenez, peritu-tasazio kontrajarria balioak egiaztatzeko baliabide guztiak aplikatzearen emaitzako balorazioak kasu bakoitzean berretsi edo zuzentzeko erabili ahal izango da; balio horiek artikuluan horren 1. idatz-zatian azaltzen dira.

Peritu-tasazio kontrajarria egiteko prozedura, arestion aipatu den Foru Arauaren 128. artikuluan araupetu ez ezik, ondoko artikuluan hauetan ere araututa dago: Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergen Kudeaketarako Araudiaren, uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsi zenaren, 97 eta 98. artikuluetan; izan ere, interesatuek tasazio hori erabil ditzakete Administrazioak egiten duen egiaztapenaren emaitzako balioekin bat ez badator.

Prozedura honetan, ondoko hauek dira partehartzaileak: Administrazioaren peritua, zergadunaren peritua eta, zenbait kasutan, horien balorazioei doazkien zenbatekoen arteko aldeak gertatuz gero, gainerako beste peritu bat.

Gainerako perituak interesa agertzen duten eta egoki den elkargo bakoitzaren zerrendetan agertzen diren elkargokideen edo bazkideen artean aukeratuko dira; horretarako, jendaurreko zozketa egingo da abenduan, eta indarrean iraungo du hurrengo bost urteetan, harik eta zozketa berria egin arte.

Gainerako peritu horren ogibidesariak Administrazioak edo zergadunak ordaindu behar ditu, beti ere gainerako perituak egiten duen balorazioaren eta subjektu pasiboak aitortzen duen balioaren arteko aldea zein den.

Hori dela bide, eta, besteak beste, ados ez datozen bi alderdiek peritu-lanak egin ditzakeen pertsonaren ogibidesarien zenbatekoa aurretiaz ezagutu ahal izan dezaten komenigarria dela uste izaki, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergen Kudeaketarako Araudiak, uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsi zenak, ogibidesari estandarizatuak ezar daitezkeela xedatzen du bere 97. artikuluan 4. idatz-zatian.

Manu hori garatze aldera, honako Foru Agindu honetan, ogibidesariak kalkulatzeko formula bat ezarri da, baldin eta gainerako perituak ogibidesarion gainean eratutako ondasunak edo eskubideak baloratu behar baditu. Formula modu errazean aplikatzekoa eta ahalik eta objektiboena izan dadin, Bizkaiko Foru Ogasunak egindako peritu-txostenaren bidez egiaztatutako balioa erabiltzen da erreferentziako balio gisa, txosten hori espedientean esku hartzen duten alde guztiek ezagutzen baitute.

Hori dela bide, ondokoa,

XEDATU DUT:

## **1. artikulua.-Xedea**

Honako Foru Agindu honen xedea da Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 128.3. artikuluan xedaturik dagoenaren arabera izendatzen diren perituek peritu-tasazio kontrajarrietan parte hartze aldera jaso behar dituzten ogibidesarien zenbatekoa araupetzea.

Gainerako perituak peritu-tasazio kontrajarrietan gertutzen duen irizpenak arrazoiturik egon behar du, baloraziorako erabiltzen den prozedurari edo metodoari dagokionez; horrez gain, egiten diren kalkuluak eta kontuan hartzen diren inguruabarrak ere adierazi behar dira.

## **2. artikulua.-Ezarpen-eremua**

Foru Agindu honetan xedaturik dagoena haien gainean eraturik dauden ondasun edo eskubideei dagozkien peritu-tasazio kontrajarrietan aplikatuko da, baldin eta haiek Bizkaiko Lurralde Historikoaren zerga arloko sistemaren barruan dauden zergetariko bat ordainarazteko kontuan hartu behar diren balioak ezartzen badituzte.

## **3. artikulua.-Ogibidesariak kalkulatzeko formula**

Ogibidesarien zenbatekoa eurotan ezarriko da, halako moldez non 400eko kopuruari batu egin beharko baitzaio erregistro-finka bakarra eratzen duten ondasun higieziinei edota aurkezpen-espeditente bera osatzen duten ondasun higikorrei edo eskubideei dagozkien balioak egiaztatzeko prozedura egokian Zerga arloko Administrazioak jarritako perituak egiten duen balorazioaren 1.400 kopuruaz zatitzearen emaitza.

Baldin eta Zerga arloko Administrazioak jartzen duen perituak egiten duen balorazioa 3.780.000 eurotik gorakoa bada, kopuru horren arabera kalkulaten diren ogibidesarien zenbatekoari, aurreko paragrafoan arautu den formula aplikatuz, gaindikina bider 0,0002 egitearen emaitzako kopurua batu behar zaio; horren baterako muga, gehienez, 4.000 euro izango da.

## **4. artikulua.-Ordaindutako gastuak**

Foru Agindu honen 3. artikuluan xedatutakoarekin arabera ateratzen den ordainsariaren zenbatekoaren barruan peritu-lanaren ondoriozko gastu guztiak sartzen dira, lanbide elkargoaren ikusonespenak eragiten dituen tasei doazkien zenbatekoak ere barne. Kopuru horretan ez da Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartzen.

## **5. artikulua.-Gordailuaren zenbatekoa**

Gainerako perituak bere ordainsarien aurretiazko gordailua eratzea eskatzen duenean, gordailatu beharreko zenbatekoak ezin gaindi dezake Foru Agindu honetan ezartzen den formula aplikatzearen ondoriozko kopurua. Zenbateko horri Balio Erantsiaren gaineko Zerga egokia batuko zaio.

# **AZKEN XEDAPENA**

## **Bakarra.-Indarrean jartzea**

Honako Foru Agindu hau «Bizkaiko Foru Aldizkarian» argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2009ko irailaren 15ean.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua

JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ